



ANDOAINGO EH BILDUREN ESKAINTZA ANDOAINGO EAJ-PNVri
2019-2023 AGINTALDIA

Andoaingo EH Bildu
Andoainen, 2019ko ekainean

1.- SARRERA

2019ko maiatzaren 26an ospatu ziren udal hauteskundeen emaitzei erreparatuta, Andoaingo alderdi politiko abertzaleek bozen %61,46 lortu ditugu; 4503 bozka, hain zuzen ere. Datu honekin batera azpimarratzekoa da partehartze datua ere, %63,61ekoa. Beraz, emaitza kontutan hartzeko modukoa da.

Bi alderdien artean 17 zinegotzietik 11 eskuratu ditugu. Gobernatzeko eta erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan, beharrezkoak diren 9 zinegotzietatik goitik.

Etorkizunari begira herri estrategia bat beharrezkoa dela esan eta entzun izan dugu sarri. Espainiar Estatutik datozen birzentralizazio eta eskubideen murrizketa hotsei aurre egingo dion herri estrategia bat.

Herri estrategia horrek herrietan oinarri sendoa behar du izan, edo oinarri ahularekin jaioko da osterantzean. Pertsonen eskubideen defentsan eraiki beharreko estrategia da. Herritar guztiek, eskubide guztiak izango dituzten herria eraiki behar dugu.

Euskal Herriaren eskubideak eta herritar guztien eskubide sozial eta politikoak defendatzen dituztenen artean egin behar dugu lan hori.

Andoainen, azken urteotan alderdi abertzaleen arteko elkarlana berrartu izan dugu; Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketan egin genuen topo, euskararen aldeko herri dinamiketan izan gara eta nola ez, Andoaingo Udalean ere 2016 eta 2017 urteen artean elkarlan horrek bere fruituak eman zituen, aurrekontuen baitan hainbat inbertsio ahalbidetuz. Elkarlan horren amaieraz irakurketa ezberdinak egiten baditugu ere, azken urteotako harreman politikoak onak izan direla ondoriozta dezakegu.

Udalgintza herritarron politika eremua da. Herrietan egiten duguna. Horretarako herrietatik sortutako aliantza politikak behar ditugu. Proposamen honen bitartez, Andoaingo EHBilduk, elkarlanerako proposamena luzatu nahi dio Andoaingo EAJ-PNVri.

Elkarlanerako eskaintza

Gauzak horrela, elkarlan hori hainbat modutan eman daiteke. Andoaingo ehbildutik gure prestutasuna adierazi nahi dizuegu elkarlan hori eman daitekeen aukera guztien gaineko azterketa egiteko. Aukera erreala behar du izan eta oinarri sendoa duena, eta legegintzaldian zehar handitzen joan daitekeena. Inbestidura akordioa, aurrekontuak negoziatzeko lehentasunezko kidea, legegintzaldiko akordioa... eta hortik aurrera egon daitezkeen aukerak aztertzeke prest gaude.

Elkarlanerako eremua

Elkarlanerako aukera hauek, hasiera batean udalgintzaren eremura soilik lotutako akordioa litzateke; herri dinamiketara zabaltzeko aukerarekin, baina derrigortasunik gabe.

Akordio irekia

Elkarlan hau, hazteko helburuarekin jaioko litzateke. Eta mamiarekin bat egin dezaketen beste alderdiei irekita egongo litzateke.

2.- GOBERNANTZARAKO BALOREAK

- **Pertsonen beharretan zentratuko den gobernua:** Pertsona izango da gure politika publikoen ardatza.
- **Justizia soziala eta herritarren arteko kohesioa bultzatuko du:** egun bizi ditugun ezberdintasunak murrizten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Euskalduna eta euskaltzalea:** Euskara izango du lan tresna eta Euskara sustatuko du modu zabal eta transbertsalean.
- **Parekidea eta feminista:** Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egingo du.

- **Memoria partekatu baten alde egingo duena:** Azken urteotan abiatutako elkarlana izango du oinarri. Eta biktima guztien errekonozimenduaren eta erreparazioaren alde egingo du. Sufrimendu guztiak kontutan hartuz lan egingo duen gobernu.
- **Erabakitze eskubidearen alde dagoen gobernu:** Euskal herritarrok gure etorkizuna modu librean erabakitzeke dugun eskubidearen alde lan egingo du.
- **Partaidetza:** herritarren partaidetza sustatuko duen udal gobernu.

3.- LEHENTASUNAK

- **Udal liburutegi berria** martxan dagoen prozesuarekin jarraitu. Kokapenaren inguruko aurretiazko ikerketak egin eta ondoren kokagunearen gaineko erabakia hartu.
- **Allurralde kiroldegia** Erabilera anitzeko bigarren pista estalia martxan jarri. Lehenbizi proiektu definitiboa egin eta finantziatorako dirulaguntzak bilatu. Exekuzioa agintaldi honetan bertan egin.
- **Emakumeen Etxea** Udal Liburutegiaren exekuzioaren menpe.
- **Bazkardoko lotunea:** GFAk konponbidea eman diezaion interlokuzio iraunkorrerako arduradunak izendatuko ditugu. Interlokuzio honek, beste gaiei jarraipena egingo die. Interlokuzio hau alderdien artean eratzen dugun “jarraipen batzordea” izan daiteke.
- **Ur hornidura sare**a berrikuntzarako eremu berriak adostu.
- **Saneamendua**
 - o Olagain: Irailean bertan partida egokitu eta esleipena martxan jarri.
 - o Sorabilla: jarraipena egin
 - o Juanita Alkain: Irtenbide definitiboa adostu.
 - o Ziako: Eusko Jaurlaritzarekin epeak adostu.
- **Hirigintza**
 - o Plan Orokorren berrikuntza martxan jarri.

- o Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialaiko proiektu urbanistikoak burura eramán.
 - o Illarramendiko eremu industrialá garatu.
 - o Zahartzen ari diren guneen berreskurapena: Gabriel Aresti, Galardi, Goiburu Plaza, Dr Huizi besteak beste.
- **Mugikortasuna:** herriko mugikortasun azterketa egin.
- **Tokiko Garapena**
 - o Garapen Agentzia sortu.
 - o Herriko merkataritza indartu.
 - o Turismo plangintza adostu.
- **Irisgarritasuna**
 - o Urigain Kultur Etxean igogailua.
 - o Herrian egin beharreko zuzenketen plangintza adostu.
- **Hondakinak**
 - o Gaikako bilketan helburu berriak eta estrategiak adostu.

Proiektu hauez gain, beste departamentuetan aurrera eramaten diren politikak urteroko aurrekontuetan zehaztu eta negoziatuko ditugu.

Beraz, hemen aipatzen ez badira ere Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Euskara, Zerbitzuak edo Langileriako sailetan plangintzak adostuko ditugu.

Andoainen, 2019ko ekainean

